



Dozenaka parte hartzaile Andoaingo motozaleen bilkuran

Motozaleen lehen bilkuran 60 lagunek parte hartu zuten.

Andoainen motozale ugari dago eta haiek guztiak ospakizun baten inguruan biltzeko lehen saioa primeran atera da. Aurreko larunbatean izan zen, eta 48 moto ezberdinetan 60 lagunek Gipuzkoan barrena txangoa egin eta gero, Andoainen jarraitu zuten ospakizunarekin. Antolatzailerik adierazi dutenez, datorren urtean zerbait handiagoa egin nahi dute. Afizio bereko jendea elkartzea edota motoen inguruan hitz egitea, horietan izan ziren eguna antolatzeko xede nagusiak.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]



48 moto ezberdinetan 60 lagunek parte hartu zuten lehen moto bilkuran. Antolatzailerik adierazi dutenez, datorren urtean zerbait handiagoa egin nahi dute.

Biktima guztien aldeko hitzak

Astelehenean –azaroak 10– Oroimenaren egunean Udal adierazpen bana argitaratu ziren Urnietan eta Andoainen. “Indarkeria bidegabe bat pairatu duen pertsona oro” gogoan hartu zituzten, ñabardura batekin. Urnietan aho batez onartu zen Udal adierazpena, eta Andoainen sozialistek eta popularrek ez zuten alderdi abertzaleekin bat egin nahi izan.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]
[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

“Baietz gurean!” egitasmoa

Enpresetan euskara normaltasun gehiagoz erabiltzen laguntzeko egitasmoa.

[ESKUALDEA, 8-9. ORRIALDEAK]

Asier Septien triatleta

Andoaingo gaztea Espainiako txapeldunorde berria da, 20-24 urte bitartekoan mailan. Lanzaroteko triatloian lortu zuen balentria.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

“Andoaingo Gudua 2015”, izena emateko bilera deitu dute

Manuel Larramendi Kultur Bazkua ezagutzera eman duenez, datorren astelehenean –azaroak 17–, datorren urteko edizioa prestatzen hasteko bilera egingo dute Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan. Arratsaldeko zazpitan hasita, *Andoaingo gudua*, 1837 ikuskizunean parte hartu nahi duten andoaindar guztiak izena emateko

hasi beharko dute. Era berean, bertaratzen direnei 2015eko ikuskizunaren nondik norakoen lehen zertzeladak emango zaizkie.


Esan bezala, lehenengo bilera honen helburua datorren urteko irailaren 11n eta 12an antzeztuko den Andoaingo Guduan parte hartu nahi dutenen izenak hartzea da, lehenbaile-

hen taldeak osatu ahal izateko. Izan ere, andoaindarrek lau eginkizun ezberdinetan parte har dezakete: soldatu edo fusilari gisa, benetako armekin su eginez (horiek arma lizentzia berezia behar dute), fusilari gisa baina benetakoak ez diren armekin antzeztuz, herritar gisa, antzezle gisa, musikari gisa edo ikuskizunaren segurtasun-

naz eta antolaketaz arduratuko den taldeko kide gisa.

Lan talde horiek orain zehaztu behar dira, soldaduen eta antzezleen jantziak josten orain hasiko baitira. Horregatik, garrantzia handikoa da izena ematea astelehenean, “baita iaz parte hartu zutenek ere”.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]



(B) Diru (B)eltza, enplegu (B)eltza



“A” gizartea lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

www.ekonomiagardena.net

Gipuzkoa
BERRIA



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Xalbadorren heriotza

Jainkoa eta ni" irakurri nuenean zin egin nion neure buruari: "aukera dudanean Xalbadorri entzutera joan behar dut". Berari omenaldia egiten ziotela eta erabaki nuen joatea. Manolo Alkorta harakinari esan nion eta hura bere emaztearekin eta ni Kristinarekin erromes joan ginen Urepelera igande batez. Nik bertsoengatik nire igandeko eginbeharrak bete gabe ez nintzen aldendu inoiz eta don Eusebiori eskatu nion, eta oparo eman zidan baime-na.

Urepeleko meza nagusira iritsi ginen, ondorenean Lazkao Txikirekin egon ginen, txiste pare bat kontatu zizkigun eta bazkaltzeko ordua heldu zitzaigun. Bi edo hiru jangela bazeuden eta guri tokatu zitzaigun ez zeuden ez Salvador eta ez beste bertsolariarik. Ondoren heldu ginen bertso festara; han sartu zen erdiko pasaizotik Xalbador eta ez beste bertsolariarik. Baina aurretik gizon baten ondoan egokitu nintzen eta galdetu nion: "atreben-

tziarekin, nongoa zaitugu?" eta hark erantzun: "Baigorrikoa", eta berak berriz "eta zu?"; "Hernanikoa" nik eta "oh la, la!!". Eta orduan esan nion: "Bihotzetik ez omen dago ondo...", eta hark erantzun: "Miatu degu ondo eta ez dauka ezer". "Horrela esateko bera sendagilea ote" pentsatu nuen.

Honetan han zetorren Xalbador denak agurtuz pasiloan zehar. Ni, ordea, Ameriketatik etorri nintzena bera agurtzera eta eskertzera ez nintzen ausartu eskua luzatzera, baserritar lotsati, kezkatu, beldurtu izaki, horrelakoa da Iñaki.

Hasi ziren bertsoan eta handik laster oholta gaineratik altxa eta atera egin zen Xalbador, eta handik laster dei hau luzatu zuten mikro-tik: "Mixel Labegueri atera bedi". Eta nire ondoan zegoen gizona atera zen, nik ez nuen ezer lotu hala ere...Gertatu zena hau izan omen zen. Lurrean aurki zuten eta handik eskolara eramanean zuten eta kanpotik entzuten ziren bertsoak eta hitz hauek esan zituela: "pena hartzen det hemen bildu den Euskal Herriari agur egin gabe joan beharra"; eta hori esanda hil zen.

Inor ez ginen enteratu zer pasa zen. Etxera heldu eta Kristinaren alabak telefonoz abisatu zigun Parisko Irratian entzun zuela Xalbador hil zela. Hurrengo igandean meza nagusiko sermoia izan zen: Xalbador, herri maisua, hil zaigu. Hau kontatu det nire ikusteko moduan.

Bus zerbitzuak 2015ean

Gipuzkoako Foru Aldundiak abiatutako parte hartze prozesua berriki amaitu da. Biler horietan datorren urtean abian jarriko diren autobus zerbitzuen berri eman dute. 500 lagun inguruk hartu dute parte denera azkeneko fase horretan. Buruntzaldekuan bildu zen jende gehien, 114 herritar Hernanin egin zen Buruntzaldea mailako bileran hain zuten.

Prozesu honen helburua herritarrei zer nolako bus zerbitzua nahi zuten galde-tzea izan da, hutsuneak betetzeko asmoz sortua. Iaz hasi ziren bilerak egiten eta 3300 ekarpenetik gora jaso ziren. Aldundiak galbahea pasa eta berriro bilerak egin ostean, behin behineko

proiektuak diseinatu zituen. Urriko bileretan aurkeztu dituzte proiektu horiek eta, oro har, herritarrek begi onez ikusi dituzte.

Aldundiak 2015erako aldaketak iragarri ditu; hala nola, %33 gehiago inbertituko du garraio publikoan, 57 gidari lanpostu gehiago sortuko dira, linea berri asko egongo dira eta gauetako zerbitzua hobetuko da. Honenbestez, zerbitzu berri horiek aldaketa handiak eragingo dituzte herri arteko autobus zerbitzuan. Azkenik, Aldundiak zorianak eman nahi dizkie herritarrei, prozesuan parte ekarpenak egiteagatik eta elkarlanean zerbitzu publikoa benetako beharretara egokitzeagatik.

Udal ordezkariak duten hiru alderdiek bat egin zuten

Adierazpen bateratua Oroimenaren egunean



EAJ-PNVko, EH Bilduko eta PSE-EEko Udal ordezkariak astelehen iluntzean deitu zuten agerraldian.

Xabier Yurramendi EH Bilduko zinegotziak euskaraz eta **Herme Gonzalez** PSE-EEko zinegotziak erdaraz hiru alderdien artean adostutako adierazpena irakurri zuten: "Urnietako Udalak adierazten du bakea eta bizikidetzaren beharrezkoa dela indarkeriaren bidegabe-eria errekonozitzea, eta eragindako mina eta biktimen duintasuna ere errekonozitzea. Biktima guztiek merezi baitute egia, justizia eta erreparaziorako esku-

bidea". Aurkezpenean, **Mikel Pagola Urnietako alkateak** agintaldi honetan alor honetan landutakoa azaldu zuen: "Urnietako Udalaren ordezkariak dugun udal politikoko guztiak elkarlanean aritu gara bake eta bizikidetzaren kultura sustatu asmoz. Udalak lana lau esparrutara bideratu du; hezuntzan, herritarrekin, komunikazio eta zabalkunde- an, eta politikan. 2014ko urte hasieran, bakea eta bizikidetzaren inguruko jardunaldiak burutu genituen. Bertan, iragana, orai-

"Biktima guztiek merezi baitute egia, justizia eta erreparaziorako eskubi-dea"

na eta etorkizuna landu zirelarik".

Urnietan Udal adierazpena aho batez onartu zuten bitartean, Andoainen PSE-EEk eta PPK ez zuten bat egin alderdi abertzaleekin.

Bideoa: Aiuurri.com

Joxeba Lizeaga urnietarrak hizlari jardun zuen Gaztegunean

"Mexiko izugarria da", Lizeagaren eskutik

Yucatan estatuko hondartza zoragarrietara, "todo incluido" pultsera jantzita, edo Chiapasera brigadista moduan joandakoengatik urrutitu geratzen den Mexiko bat erakutsi zien bertaratutakoei. Mexiko DF eta inguru-tako estatuak oinarritzat hartuta, errepa-soa eman zien bertako giro politiko, ekonomiko eta sozialari.

Ayonitzapan bahitu eta eraildako 43 magisteritzako ikasle-en gaia eta narkotrafikoaren nondik norakoak ere presente egon ziren hitzaldian.

Mexikarren izaera alaia, ohi-tura zein historia aberatsak eta beraien egunerokotasuna ere jorratu zituen argazki bidez, hitzaldian zehar, argi utziz, hain



herrialde handia izanik, Mexiko "asko" daudela Mexikoren barruan.

Hainbat datu kuriosori ere leku egin zien. Adibidez, Mexiko-ko banderaren koloreak (zuria, gorria eta berdea) jatorri bizkaitarra zuten Agustín de Iturbi-

dek aukeratu zituela, garaiko "Señorio de Vizcaya"koan oinarrituta. Geroago, Sabino Aranak ikurriña sortzerakoan egin-go zuten moduan. Entzuleen galderei erantzunez, eta herrialde hartako produktu batzuk dastatuz amaitu zen ekitaldia.

Hitzordua ostegun honetan, 18:00etan hasita Lekaion

Berdintasun planari lotuta, bilera deitu dute

Udaleko Gizartekintza eta Berdintasun arloak bilera bat deitu du herriko elkarteekin ostegun honetarako, lehen Berdintasun planean adostutako ekimenei jarraipena emateko. Azken urteetan, elkarteekin bi bilera deitu dituzte genero berdintasunaren inguruan eta hainbat ekimen jarri dira. Ostegun honetako bileran bi gai nagusi jorratuko dituztela iragarri dute: "Batetik, herriko elkartei euren jardueretan genero ikuspegia txertatzen lagunduko dien prestakuntza plana aurkeztuko diete. Eta bestetik, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunerako antolatuko diren ekitaldien berri emango da". Miren Martiarena zinegotziak hitzorduaren inguruko xehetasunak adierazi dizkio Aiurri astekariari:

Zergatik dira herri elkarteak garrantzitsuak Berdintasun planaren garapenean? Zein jokabide hobetu, aldatu dezakete?

Miren Martiarena. Udalak 2012an egindako diagnostiko eta planaren ondorioz udaletik egiten ditugun ekintza guztiak nolabat ordenatu egin dira helburu batzuk lortzeko nahian. Hor, udalak norbanakoei zuzentzerakoan lana udal langile, udal politikari, elkarte eta herritarrekin antolatzen du. Horrela, bakoitzera egindako indarrak, bidalitako mezuak koherentzia dauka.



Miren Martiarena.

Herriko elkarten kasuan garrantzia nabaria da, izan ere, elkarte hauetan herritar ugari parte hartzen du, eta eman diezaiekegun formazioa modu biderkatzailean zabal daitekeela deritzogu. Adibidez, kirol elkarte bateko entrenatzaileak berdintasuneko sentsibilizazioa izan ostean, bere eguneroko jardueran erabil dezake entrenatzen duen gazte taldearekin. Gazte horiek ere sentsibilizazio hori jasoko dute, bertatik ikasi, eta ondoren euren eguneroko bizitzan erabili.

Nagusiki herritar eta elkarteekin sentsibilizazio eta egoeraren inguruko jabetza-prozesu bat abiatu dugu, pixkanaka, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko bidean eragile aktibo bihurtzeko.

"Urnietako elkartei eta herritarrei eskertu nahi diegu parte hartzeko eskatu zaien bakoitzean modu egokian egin izana"

Miren Martiarena

Urnietako egoera zuk duzun arduratik zer nolakoa da? Garapen bat somaten duzu, baikor izan gaitezen?

M.M. Urnietako egoera ez da txarra, baina beti ere hobetu liteke. Horretan gabilta lanean guztiok. Egia da, geroz eta modu antolatuagoan egiten direla ekintza ezberdinak, eta agian iruditu ez arren, urte osoan egiten dira berdintasunera begiratuz ekintzak udaleko alor guztietan, hirigintza sailetik hasi eta sustapen sailera bidean udaleko beste sail guztiak ere barneratuz.

Baina lana ez da Udalaren barruan bakarrik egin behar, eta Urnietako elkartei eta herritarrei eskertu nahi diegu parte hartzeko eskatu zaien bakoitzean modu egokian egin izana, baita bilera edota formazio batetik bestera ere desberdintasunak ikus daitezkeela onartu ere.

Garapena nabaria da nire ustez, beraz, bakoirik izan gaitzeko. Prozesua luzea da, baina pausoz pauso bagoaz aurrera.

18:00. Lekaio. Azaroak 13, osteguna.

Gonzalez, batzarkide berria

Gipuzkoako PSE-EEk ohar bidez zabaldu duenez, Urnietako PSE-EEko buru **Herme Gonzalez** Gipuzkoako Batzar Na-

gusietako batzarkide berria izango da. Mikel Duranek utzitako tokia beteko du "Socialistas Vascos-Euskal Sozia-

listak" taldean. Urnietarrak zeregin berrian "ilusioz eta ikasteko gogoz" ekingo diola adierazi du.

Antzezlan bikoitza ostegun honetan Saroben

Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsionisten Antzerki Taldeak antolatuta, hiru antzezlan eskainiko dira egun hauetan Urnietan. Asteazkenean Saroben Aspe Onceko taldeak "Verdi que te quiero Verdi" antolatu zuen.

Ostegun arratsalde hone-

tarako -azaroak 13- bi antzezlan iragarrita daude:

17:30 Hondarribiko Kasino Zaharreko antzerki taldea: "Ellas son asi".

19:00 Denda Berriko taldea, "¿Crisis...What Crisis?".

Innoforo, eskualdeko eragileen topaleku berria

Postontzia

DONOSTIA-BETERRIK PROGRAMA BAT ABIARAZI DU ESKUALDEA SOZIOEKONOMIKOKI SUSPERTZEKO

"Innoforoa tokiko eragileen parte hartzerako gunea da, eskualdean enplegua sortzeko aukerak definitu eta zehazteko helburua duena. Eskualdeko eragile sozioekonomikoen topaketarako espazio parte hartzailea da, Donostia-Beterriren garapen endogenoko ardatz estrategikoak identifikatzea xede duena. Enplegua sortu eta jarduera ekonomia sustatzeko ekimen zehatz eta praktikoa abian jartzeko helburuaz gain, eskualdearen garapen sozioekonomikorako laguntza politika publikoak definitzeko ere badu.

- Ez da azterketak egiteko foroa.
- Ez da gerora dokumentu batean jasotzeko helburuarekin iritziak eskatu eta bilitzeko foroa.
- Ez da eskualdeko eragileak bildu eta Donostia-Beterrik dituen arazoei buruz eztabaidan jartzeko foroa ere.

Innoforoa ekonomia suspertzeko aukera berriak sortzeko tresna da; enpresen eta tokiko eragileen artean elkarlanean aritzeko; ondorengo urteotan jarduera so-

zioekonomikoa eta enplegua sortuko duten proiektu berriei bultzada emateko tresna. Gisa honetako ekintzak aurreikusten dira horretarako:

- 1 Eskualdeko sektore estrategikoak zein gorako bidean direnak identifikatzea.
- 2 Tokiko garapen koherenterako estrategia definitzea.
- 3 Aukera-esparruak identifikatzea.
- 4 Aukera nahiz ekimenak zehaztu eta abian jartzea.
- 5 Tokiko garapenerako politika bideragarriak identifikatzea.

Eskualdeko udal guztiak (Hernani, Andoain, Lasarte-Oria, Usurbil, Astigarraga eta Urnieta) elkarrekin bultzatutako ekimen honek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentuaren laguntza du.

Ekimen berri bezain praktikoa honen aurkezpena azaroaren 20an egingo dugu, 17:30ean Lasarte-Oria (Villa Mirentxu, Areto Nagusia). Gonbidaturik zaudete, bai aurkezpen ekitaldira bai Innoforoan aktiboki parte hartzera".

17:30 Villa Mirentxu Lasarte-Oria Azaroak 20, osteguna

Noaua! bordaberri 3 USURBIL 943360321 elkarte@noaua.com

noaua

ANDOAINGO UDALA

Memoria Eguna, Udal adierazpena

EH Bildu eta EAJ-PNV alderdien oniritziarekin onartu den Udal adierazpena:

“Egia ez da utzi behar erdizka, herrenka, amnesia jota edo itota. Giza eskubide orren urraketa guztiakin osatutako egia aldarrikatu nahi dugu, benetako oroimen partekatua.

- Giza duintasunaren defentsa, ideia edo egitasmo politiko ororen gainetik dago. Iraganari dagozkion erantzukizunak onartuz, elkarrekin bakerako eta bizikidetzarako akordio partekatu bat bilatu nahi dugu.
- Andoaingo biktimak gogon izan nahi ditugu Memoriaren egunean. Biktima da, lehen-lehenik, giza eskubideen urraketa jasan duen pertsona; beraz, indarkeria bidegabe bat pairatu duen pertsona oro. Gainerakoan sufrimendurikiko sentiberatasuna eta errekonozimendua bultzatu nahi dugu.
- Edozein indarkeria motaren kontrako jarrera partekatu nahi dugu. Indarkeriaren injustiziaren onarpena, eragindako kaltearen onarpena eta biktimen duintasuna beharrezko dituzte bakeak eta bizikidetzak.

Biktima guztiak merezi dute egia, justizia eta ordainerako eskubidea.

- Memoriaren ariketaren bidez helburu nagusi batera iritsi nahi dugu: Andoainen bakea eta bizikidetzaren berri-berria eraikitzea. Ez hutsunez betetako memoriak, ez memoria obsesiboak ez dute laguntzen bake zuzena eta bizikidetzaren sarea ehuntzen.
- Badugu garaia gure herriak jasan duen sufrimendua ezkutuan dagoen kutxa horretatik atera, eta, egia, justizia eta errekonozimenduan oinarritutako jendar-terea (herria) eraikitzen hasteko. Horregatik, bizikidetzaren helburu, eta egun honetatik aurrera, Andoaingo errealitatearen mapa osatzeko konpromisoa hartzen dugu adierazpen honetako sinatzaileok.
- Iraganari buruzko memoria etiko eta kritikoan oinarritutako den egia eraikitzeko konpromisoa partekatu nahi dugu, giza eskubideen urraketa (jatorria dena dela ere) jasan duten biktima guztientzako laguntza bat eginez, eta giza eskubideen urraketa guztiak aitortuz.

Giza duintasunaren aldeko konpromisoa adierazi nahi dugu, giza eskubideen aldekoa, eta euskal herritarren bake eta askatasunaren aldeko konpromisoa berretsi, memoriaren egunean. Memoria sendagarria landuz, iragan mingarriaren atek itxi nahi ditugu eta herri osoarentzako etorkizun itxaropentsuaren atek zabaldu”.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

“Gazteok hartu hitza!” parte hartze prozesua Andoainen

Garai bateko Olinpiadak berreskuratzea, ideietakoa



Datorren astean, azaroak 19, parte hartze prozesuaren azken bilera egingo dute.

Azaroaren 5ean gazte- en parte hartze prozesuko bigarren fasea abiatu zen Basteron. Lehenengo fasean Andoainen beharrak zeintzuk ziren ikusita, behar horiei erantzuna emango dieten dinamikak pentsatu zituzten. Basteron bildutako proposamen guztiak mahai gainean jarrita, erabaki zehatzago bat hartzen hasi ziren.

Kirola, azpiegitura, lana eta etxebizitza, espazioa eta aisialdirako eskaintzarekin lotuta zeuden lehenengo bileretan egindako proposamenak. Horietako asko, ordea, ideia orokorrak, abstraktuak eta aurrekontutik kanpo zeuden; gazte- en parte hartzea sustatzea, belaunaldien arteko harremana lortzea eta etxebizitzaren arazoari aurre egitea, besteak beste. Horregatik, lehenengo asteko bilera proposamen zehatzago bat garatzeko eta ideia abstraktu horiek egikartzeko erabili zuten.

Andoaingo arazo nagusia gaztearen sakabanaketa, komunikazio eza eta belaunaldien arteko harreman falta di-

Arazo nagusienak gazte-riaren sakabanaketa, komunikazio eza eta belaunaldien arteko harreman falta direla ondorioztatuz azaroaren 5eko bilera

ra. Hori dela eta, gazte dinami- ka baten bitartez, arazo horri buelta eman nahi diote. Ideia zaparrada ugaria izan zuten bileran; Andoainen koadrilen egunak indar handia duenez, antzeko beste egun bat antolatzeko interesgarria iruditu zitzaizkien, herriari bizia ematez gain gazteen arteko komunikazioa ahalbidetu dezakeelako; baltsa jaitsiera festetan egin ordez beste egun batean antolatzea proposatu zuten, edota garai batean izandako olinpiadak berreskuratzea, koadrillen arteko joko edota bazkaria izango dituen festa egun bat, kontzertuak...

Gauza bat argi zuten guz- tiak: gazteak festaren inguruan mugitzen direla. Honenbestez,

gabezia horiei guztiak irtenbi- dea emango dien festa bat antolatzea eraginkorra izan zite- keela pentsatu zuten. Hala ere, argi zuten ekintza edo ekintza sorta horiek gazteak elkartu eta mugitzeko izango direla, perfil ezberdinetako gazteak elkarlanean jarriko dituen, guztientzako hurbiltzeko erra- za izango den tokian eta, posi- ble balitz, behin baino gehia- gotan egingo dena. Gainera, antolatzaileak gaztearen lagin txiki bat izatea nahi- ko lukete, adin eta inguru ez- berdinetako gazteak elkartuta- ko taldea izatea, alegia.

AZKEN BILERA AZAROAREN 19AN

Ideia hauek guztiak azaroaren 19ko bilera zehaztuko dituzte. Udalak orain arteko propo- samen guztiak jaso ditu eta horie- rik aztertzen ari da, bideraga- rriak diren ala ez ikusteko. Prozesu honen azkeneko bilera izango da 19koa. Bertan, propo- samen bideragarriak zeint- zuk diren azalduko dute eta horien artean erabakia zehaz- tea izango da gazteen lana.

Katamalo Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!

LASTER SALGAI

Plateruena alde **Katamalo**k egindako lana. 8€an eskuragai gurean.



Zilarberritzen,
Durangon kultura bitartzeko.

...eta Urte
ASKOTARAko!

LIBURUA GARAI EZBERDINETAKO HIRU ISTORIOREKIN OSATU DU

“Orube abandonatuak”, Garazi Kamioaren liburu berria

Beste norbaiten zapatak ipuin bildumaren ostean, helduentzako lehen eleberria argitaratu du Garazi Kamio andoaindarrak. Garai ezberdinetako hiru istorio kontatu ditu erbestea edo, nagusiki, etxe-

an izan dezakegun bakardadea islatzeko. Pozik dago argitaratu berri duen lanarekin, aurrekoa idazteko baino denbora gehiago izan duelako. Eroso aritu dela dio.



Liburu irakurterraza da. Simplea bezain gordina.

Garazi Kamio. Aurreko liburu oso erraz irakurtzen zutela esaten zidaten irakurleek eta ez zutela haria jarraitzeko arazorik. Segituan irakurri omen zuten. Oraingoan saiatu naiz zehaztasun gehiago jartzen, bai pertsonaiekin bai egoeretan; baina pozten naiz irakurtzeko erraza bada.

Zergatik kokatu duzu istorioa Andoainen?

G.K. Andoain kontakizun batean agertzen da. Liburuko hiru pertsonaiak aleatorioak dira, fizikiozkoak erabat; baina erreallitatearekin zantzuren bat izatea nahi nuen. Horregatik, Andoainen kokatutako kale bat asmatu nuen: Zumeltzegi kalea. Zumeltzegi nire aitonaaren baserriaren izena da, eta Oñatin dago; beraz, kalea ez da existitzen. Nolabait, Kale Nagusia eta Kale Berrian kokatzen saiatu naiz, nahiz eta Zumeltzegi deitu. Beraz, garai ezberdinetan nik hainbestetan pasa izan dudana Kale Nagusiaren argazkia atera dut. Eta, Andoain zergatik? Nire herria delako.

“Beste norbaiten zapatak” ipuin bilduma idaztetik helduentzako eleberria idaztera igaro zara. Non sentitu zara gusturago?

G.K. Ezberdinak dira eta aro ezberdinetan harrapatu naute. Honetan, arlo literariotik hel-



Garazi Kamio.

duago ikusi dut nire burua. Hartan, pilula txikiak izan ziren eta istoria ezberdinak labur sortu, kontatu eta amaitu behar nituen. Oraingo honetan oso ondo pasa dut; pertsonaiak eraikitzea lan ezberdina eta askoz ere zailagoa izan delako eta kontakizuna luzeagoa delako. Oraingo honetan denbora gehiago izan dut eta hobeto sentitu naiz.

Esan duzu lan zaila izan dela pertsonaiak eraikitzea. Hori izan da prozesu osoaren lehen pausua?

G.K. Bai. Lehenengo Mirenen istorioa idatzi nuen. Pertsonaiak gimnasta baten antza du eta hortik abiatu nintzen. Ondoren, Mario eta azkena, Mainer. Lehenengo biak izan dira zailenak, denbora testuingu-

ko erraztasuna. Orain, gainera, ikastolan nabil lanean irakasle lanetan. Nire literatura irakasle izandako Marian Lekunak beti esaten zidan betidanik jakin zuela horrela bukatuko nuela. Lagunek urtero esaten zidaten Igartza sarietara apuntatzeko. Oinarriak erakusten zizkidaten, baina ez nuen egiten; animatu nintzen arte. Beraz, besteek bultzatuta hasi nintzen eta Zubikarai proiektua zegoela ikusi nuenean, dagoeneko idatzita nuen, aurkeztu egin nuen, baina aurkezte hutsagatik. Merezki izan du.

Idazle esparruan zure estiloa bilatzen ari zarela esango zenuke?

G.K. Bai, laburra da nire bidea lasterketa honetan, baina pixkanaka ari naiz finkatzen.

Lehen idatzitako zortzi ipuin horietan ez zegoen zorientasunerako tarte handirik, eta oraingoan ere, pertsonaien alde iluna erakutsi nahi izan duzu.

G.K. Egia esan, ez dakit. Baina uste dut guk izan dezakegun alde iluna edo iruditzen zaigun alde iluna leuntzeko modu bat dela. “Ikusi zer pasatu zaion, ni ez nago horren gaizki” pentsatzeko eta enpatizatzeke.

Lehen Sautrelan ibiltzen zinen lanean, orain irakaslea zara. Zertan aldatu da zure bizitza?

G.K. Lehen Sautrelan publiko anonimo bati zuzentzen nintzaion bitartean, orain nire publikoak aurpegiak eta adina dituzte. Bizitza aldatu zait. Orain Andoainen nago, eta horrek esan nahi du ikastolatik atera eta kalean nagoen bitartean, “erregina” bezala ibili behar naizela batari eta besteari kaso egiten. Baina idazteko denbora gehiago dut eta ideia asko hartu ditut. Hurrek sekulako ideia pila ematen dizkirate. Nik komunikatzeko beharra dut, izan telebistan edo 11 urteko haur bati. Ikastolan lan egiteak ematen dit ordutegi

“Ikastolak asko betetzen nauen arren, telebista asko botatzen dut faltan”

bat, egutegi finko bat... baina ikastolak asko betetzen nauen arren, telebista asko botatzen dut faltan.

Zer da faltan botatzen duzuna?

G.K. Kazetaritzak daukan azkartasuna. Hurrekin oso ondo ibiltzen naiz, oso ondo moldatzen naiz eta asko maite ditut, baina lana zurrunagoa da. Gehiago sortzen dut nik nere aldetik kazetari bezela, irakasle bezala baino. Irakaslearen lana aurretik finkatuago dago. Hala ere, nire zeharbideak topatzen ditut.

Lehen Igartza saria eta orain Zubikarai saria. Ekonomia dagoen bezala, hau da aurrera jarraitzeko modu bat, ezta?

G.K. Bai, denok dakigu euskal literaturan oso gutxi bizi direla honetatik, gainontzeko guztiak lanean daude. Igartza amildegitik behera salto egiteko akuilu bat izan zen. Oraingoan aurkezteagatik aurkeztu naiz. Saria jasoko ez banu ere, liburu idatzi egingo nukeen; urtebetean izan ordez, lau urtetan edo. Sari hauek, geroz eta gutxiago egon arren, akuilu dira. Gainera, gure hizkuntzan ez da horrenbeste idazten, eta irakurri ere ez. Hori dela eta, euskaraz edozer gauza produzitu behar badugu beharrezkoak direla uste dut.

Ze egitasmo dituzu buruan aurrera begira?

G.K. Idazten jarraitzeko asmoa dut. Iruditzen zait 16-18 urte bitarteko gazteek beraien barruan duten har hori asetu beharra dutela. Askotan helduen literaturak ez diete asetzen, eta haur literatura motz geratzen zaie. Hor hutsune bat badago eta horiei zer nahi duten entzun behar zaie. Beharbada horiei zuzenduta idatziko dut.

Nire ordenagailua notatxoez jositako gauza bat izan da, pertsonaiak bata bestearekin harilkatu behar nituelako

ruagatik. Mainerrena garai honetako denez, errazagoa egin zait kokatzea. Idazketa prozesuan, beraz, pertsonaiak eraikitzen hasi nintzen. Nire ordenagailua notatxoez jositako gauza bat izan da, pertsonaiak bata bestearekin harilkatu behar nituelako. Notatxo bidez lotu dut dena eta eskema bat egin, ondoren guztia idazteko.

Nondik sortu zitzaizun idazten hasteko grina?

G.K. Betidanik izan dut idazte-

Aisialdi jarduera ugari aurreko asteburuan



Sorabillan gaztain jatea eta ipuin musikatua antolatu zuten.

Aurreko asteburuan haur eta gaztetxoei bideratutako jarduera ugari burutu ziren herriko toki ezberdinetan. **Sorabillan** gaztain jatearekin batera musika saioa antolatu zuten. **Gaztetxean** larunbat arratsaldea haurrei eskaini zieten.

La Sallen, berriz, **Izartxok** beldurraren gaua antolatu zuen ikasle askoren parte hartzearekin. **Gazte Lokalak** bere aldetik Ligodromoa tailerrarekin hilabete osoan zehar luzatuko den egitarauari hasiera eman zion.



Gaztetxean aurreko larunbatean haurren eguna ospatu zuten. Haur eta guraso ugari bildu ziren kantaldira.



Izartxok Beldurraren gaua antolatu zuen aurreko asteburuan. 150 lagun bildu zirela adierazi dute antolatzaileek.



Ligodromoa tailerrean parte hartu zuen gazte talde bat.

Mintzalaguna egitasmoaren baitan antolatutako lehiaketa

Selfie lehiaketa AEKren eta Udalaren eskutik

Mintzalaguna ekimenak antolatutako lehen selfie lehiaketa irabazleen berri eman dute egunotan. Parte hartzearekin pozik daude antolatzaileak, ekimenak harrera ona izan baitu ikasle eta irakasleen artean. Epaimahaiak honako irizpideak erabili ditu: irudimena, originaltasuna, mezua eta koloreen erabilera. Lehen edizioko irabazleak Domi eta Merce ikasleak izan dira, eta baita haiekin batera argazkietan agertzen den Ainara Loiarte irakaslea ere. Antzerkirako sarrera bana irabazi dute. Zorionak!



Domi, Merce eta Ainara izan dira lehen edizioko irabazleak.



Rosa, Justo eta Amaia dotore jantzi ziren, "euskaraz hitz egiteak dotore bihurtzen gaitu" adierazteko.



Eli, Txus, Bleidi, Marijo, Juanmi, Jose Luis eta Marijo ikasleentzat "euskaraz lotsarik gabe aritu behar da".

Jeltzaleen eskaera Udalari

Tren geltokitik gertu, Joakin Larreta kaleko euste-horman deformazio ezberdinak eta ezegonkortasunak ageri direla-

ko kezka azaldu du Andoaingo EAJ-PNVk. Egoera horrek pitzadurak eta hondoratzeak eragin ditu, kasu batzuetan

galtzadaren erdiraino iritsiz. Udalari irtenbidea eskatu dio, inguru hori egonkortzeko neurriak har ditzan.

ELKARBIZI ELKARTEAREN BILKURA OROIMENAREN EGUNEAN



Buruntzaldea mailan berriki sortu da Elkarbizi elkarte, besteak beste terrorismoaren biktimak oroitzera helburu duena. Oroimenaren egunean ekitaldia antolatu zuten "Askatasunari" eskulturaren aurrean. Elkarteko kideez gain, bertara ETAK hildako bi biktimen senitartekoak hurbildu ziren. Batetik, Blanca Villafañe Juvenal Villafañe guardia zibilaren alaba eta, bestetik, Jose Luis Lopez de Lacalleren alarguna Mari Paz Artolazabal. Ekitaldian aurkezpen lanak Mikel Arregi EAJko buruzagi ohiak egin zituen.

Guztira 60 lagun inguru bildu ziren, 48 mototan

Motozaleak oso pozik lehen topaketarekin

Aurreko larunbatean egin zuten lehen aldiz moto bilkura Andoainen. Goizean goiz Lanbroa tabernan gosatu eta Lazkaotik barrena Lizarrara joan ziren. Ondoren, Azkoitia joan, bertan bazkari eder bat egin eta Andoainera itzuli ziren, iluntzean Moon Fields kontzertua ikusteko. Guztira 60 lagun inguru bildu ziren, 48 mototan. Kanpotik gutxi batzuk etorri baziren ere, ia guztiak andoaindarrak ziren eta eguraldia lagun, egun polita igaro zuten.

“Askok gara Andoainen moitoan ibiltzen garenak. Askok, eguraldi txarra dela eta ez dute kalera ateratzen, baina afizioa badago eta hori erakustea izan da gure asmoa”, adierazi du antolatzaile lanetan ibili den Iban Korrotxanok. Afizio bereko jendea elkartzea, motoen inguruan hitz egitea, herriari eta karreterari bizia ematea, eta afizioa badagoela erakustea izan da helburua.

Parte hartzea espero baino handiagoa izan zuten eta jendearen erantzuna oso ona izan zela nabarmendu dute antolatzaileek. “Emaizta oso positiboa izan zen eta jendea oso gustura geratu zen. Ez zuten horren ondo ateratzea espero. Herriko jendeak ere esan digu oso polita izan zela. Beraz, pozik gaude”.

Aurtengoa horren ondo joan dela ikusita, gehiagotan egitea



Aurtengoa horren ondo joan dela ikusita, gehiagotan egitea adostu dute eta urtean behin, gutxienez, horrelako egun bat antolatzea gustatuko litzaieke.

“Askok gara Andoainen moitoan ibiltzen garenak. Afizioa badago eta hori erakustea izan da gure asmoa”

Iban Korrotxano

adostu dute eta urtean behin, gutxienez, horrelako egun bat antolatzea gustatuko litzaieke. Gainera, aurrera begira talde handiagoa elkartzea ere nahiko lukete: “Datorren urtean zerbait handiagoa egin nahiko genuke, baina ikusiko dugu; izan ere, zarata dela eta, ba-

tzuei ez zaizkie topaketa hauek gustatzen.”

Horrez gain, antolaketa aldetik lan handiagoa egitea suposatzen du; karreteran talde handia izanik, kruzeetako laguntzaileez gain, toki batzuetan karretera ixtea beharrezkoa delako. “Ibilbidea markatzeaz eta aurrean bidea dakien bat joateaz gain, kruzeetan laguntzaileak behar dira, baimeak eskatu behar dira bai trafikoan bai udaletxean... Ez da egun batetik bestera egin daiteken zerbait, aurretik antolatzea eskatzen du, baina jendea oso pozik geratu denez, errepikatuz egin nahiko nuke”.

Berdintasuna helburu duen parte hartze prozesu berria



Andoaingo alkatea parte hartze prozesuaren dinamizatzaileekin batera.

Andoaingo Udalak herriko kaleetan hobetu beharreko puntuak herritarren ahotsik jaso nahi ditu. Hau da, herritarren beharrik ezagutu eta herritarren ikuspegia nolako nahi den jakin nahi du. Horretarako, “Andoaingo kaleak denontzat BERDIN” ekimena jarri du martxan. Urbes For All eta Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean, prozesu parte hartzaile bat jarriko dute martxan azaroan eta espazio publikoak lau ardatzen arabera aztertuko dituzte; segurtasuna, mugikortasuna eta irisgarritasuna, emakumeen presentzia espazio publikoan eta eguneroko bizitzarako ekipamenduak.

“Kaleak ez dira trantsizio espazioak soilik, erlazioak sortzen diren tokiak dira, herritarrak sozializatzeko eta bizitzeko. Horretarako, denontzako segurtasuna eta erosotasuna behar dugu: argi gehiago leku batzuetan, garraio publikoa herrian mugitzeko...”, azaldu du **Ana Carrere** alkatea.

Helburua herriaren diagnostika egitea da. “Herritarren ikuspegia jaso eta egoera zein den ezagututa, hortik abiatzea, herritarrekin Andoaingo hirigintzan hausnartzea, gai honen inguruan sensibilizatu eta trebatzea, eta ekarpen konkretuak lantzea dira helburu nagusiak. Diagnostikoa egingo dugu, beharrik zeintzuk diren identifikatuz eta ondoren, irtenbide posibleak proposatuko ditugu”, azaldu du **Naiara Arri** aholkulariak.

Helburu horiek metodologia parte hartzaile baten bidez lortu nahi dituzte, oinarrian herritarren iritziak egon daitezkeen. Andoaindarraren eguneroko bizitzatik, jarreretatik eta ohituretatik abiatu nahi dute, Andoain

“Kaleak erlazioak sortzen diren tokiak dira, herritarrak sozializatzeko eta bizitzeko. Horretarako, denontzako segurtasuna eta erosotasuna behar dugu”

Ana Carrere

nola bizi duten jakiteko. “Bereziki emakumeak eta berdintasunaren alde lan egiten duten eragileek zelari bizi duten jakin nahi dugu, horren arabera konponbideak ere proposatu ahal izateko”.

Prozesuak bi fase izango ditu. Lehenengoan, Andoainen hobetu beharreko puntuak identifikatu beharko dituzte mapa batean. Fase hau tailer horien bidez gauzatu da eta gabonen aurretik amaituko da. Ondoren, bigarren fasea hasiko da eta bertan konponbideak proposatu beharko dituzte. Proposamen guztiak bildu eta horren aurrean Udalak zein irtenbide izango duen erabakiko du.

Zer esanik ez dago Udalak herritarrak parte hartzera gonbidatu dituela.

BOST TAILER

18 urtetik gorakoak.

18:30. Gaztetxea. Azaroak 17, astelehena.

60 urtetik gorakoak.

17:00. Bertxin. Azaroak 18, asteartea.

Gazte Lokaleko kideak.

18:00. Gazte Lokala. Azaroak 20, osteguna.

Berdintasun kontseilukoak.

18:30. Urigain. Azaroak 24, astelehena.

Deialdi irekia.

18:30. Bastero. Azaroak 26, asteazkena.

MARTIN UGALDE BEKA DEITUKO DUTELA IRAGARRI DUTE



Andoaingo Udalak Berriarekin, Elkar fundazioarekin eta Jakin erakundearekin batera Martin Ugalde beka sortuko dutela iragarri zuten azaroaren 11n kultur parkean egin zuten ekitaldian. Bertan, Anjel Lertxundik eta Joan Mari Torrealdai Andoaingo seme kuttunaren ibilbidea eta kazetaritza lana nabarmendu zituzten. Ekitaldia Martinen urtebetetze egunean deitu zuten. Biziko balitz 93 urte beteko lituzke. Bertan aurreratu zuten bekaren inguruko xehetasun gehiago aurrera emango dituzte. Beka deialdia bi urtez behin egingo da, eta bi atal nagusi izango ditu: Martin Ugalde eta euskal kazetaritza.

BAIETZ GUREAN!: ENPRESETAN EUSKARA NORMALTASUN GEHIAGOZ ERABILTZEN LAGUNTZEKO EGITASMOA

Zure enpresan nola egiten da?

“Baietz Gurean!” egitasmoa



Buruntzaldeko udalak eskualdeko enpresak euskalduntzeko lanetan ari dira "Baietz Gurean!" egitasmoaren baitan. Euskararen erabilera sustatu nahi dute, normaltasun gehiagoz.

Aholkularitza eta diru-laguntza lerroen bitartez urtetik urtera gehiago dira parte hartzen duten enpresak. Erreportaje honetan horietako batzuk ezagutzera emango ditugu:

2014an sinatutako hitzarmenak



Lasarte-Oriako Udalak Baietz Gurean! egitasmoaren barruko hiru hitzarmen sinatu ditu herriko hiru enprekin, Hostelera del Norte, Factory eta Aldikar. Laguntza honen bitartez, enpresek euskara gehiago erabiliko dute.



Hernanin aurten bi enprekin egin da hitzarmena, Katealagaia eta Spora In-gurumen Zerbitzuak.



Latz enpresaren ordezkaria Miguel Angel Lazkano Alkain, eta Andoaingo alkatea den Ana Carrere. Andoainen Latz eta Orma-Jaki Ona S.L. enprekin dago hitzarmena.

Eskualdeko enpresak



Buruntzaldeko udalen laguntzarekin euskara normalizatzeko urratsak eman dituzten Buruntzaldeko enpresa batzuk jarrian:

ANDOAIN
Orma-Jaki Ona
Latz

HERNANI
Adarra
Katealagaia
Spora
Perfyde
Hator Aholkularitza
Selac

LASARTE-ORIA
TSST
Aldikar autoak
Comercial Hostelera
Factory
Telesonic

USURBIL
Talleres M. Echeverria
Fagor Berriola
Fagor V. Luzuriaga
S. Izaguirre

Buruntzaldean, beren aldetik edota eskura dauden beste diru-laguntza batzuk baliatuz, euskararen erabilera normalizatzeko urratsak eman dituzten beste enpresa batzuk ere badira.

Bi iritzi



M. Etxeberria

“Langileen %90 euskalduna da eta euskaraz komunikatzen da. Aldaketa kalitate, prebentzio eta banatzen zaizkien beste zenbait txostenetan dago. Orain euskaratuta daude”



Orma

“Langilegoa euskalduna izanda, zerbait egin behar zen gure eguneroko lanean ere euskara txertatzeko. Orain, barne dokumentazio guztia euskaraz daukagu "pedido"-ak "eskaera" bihurtu dira. Euskaldunok halakoak egin behar ditugula uste dugu”



Andoaingo Udala
Goiko plaza, 2/g
20140 Andoain



Urrietako Udala
San Juan plaza, 2/g
20130 Urrieta



Astigarragako Udala

Astigarragako Udala
Foru enparantza, 13
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA
Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria



Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil


Baietz Gurean!

Lan  Hitz

bai
euskarari

Eta zure enpresan non zaudete?

H
E
L
M
U
G
A





KIROL ALBISTEAK

Areto futbol txapelketa

Emaitzak, 6. jardunaldia:		Galpasitx-Academia G.F
OZU	6-3 Leiza 77	09:30, Arrate.
Pausoka	2-10 Hogar	Hogar-Aure Maiton
Ondarreta	1-16 Keler	10:30, Arrate.
Aure Maiton	5-1 Galpasitx	Keler-Pausoka
Academia	2-7 Ekhia	11:30, Arrate.
Bar Txalaka	4-2 Ekaitz	

7. jardunaldia.

Azaroak 16, igandea:

Ekaitz-Centro Extremeño	10:15, Allurralde.
Ekhia-Txalaka	11:15, Allurralde.
Leiza 77-Ondarreta	12:15, Allurralde.

Sailkapena:

1. Centro Extremeño Fs	15
2. Keler	15
3. Ekhia	14
4. Aure Maiton	13
5. Hogar Extremeño	9
6. Ekaitz	9
7. Txalaka	9
8. Galpasitx	8

Hiru urte eta gero, etxean dira

Aitor Igiñitz andoaindarr eta Laura Martinez bere bikotea Euskaldu-nak antolatzen duen Mendi Astean hizlari aritu ziren, hiru urtez luzatu den bidaiari buruzko xehetasunak emateko. Denera, urte mordoxka pilatu dituzte munduan barrena bidaiatuz.

Eguberriak etxekoekin igaroko dituzte, urtarilaren 10ean berriro abiatzeko. Bizikletak Indian zain dituzte. Haien hitzaldira berrogeita hamar ikusle bertaratu zen.



Laura eta Aitor duela hiru urte abiatu ziren Andoaindik. Bidaiatik itzuli dira.

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunata	Igandea
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

15

MARTXOA/MARZO 2015 www.pausokaelkarte.org



2015
pausoka
elkartea

Egutegi Solidarioa

7€

Lagundu Gaitzazu



Salmenta puntuak:

Urnieta: Presentación de María Ikastetxea, Lekar ileapaindegia, Trazos ileapaindegia, Eder denda, Muazpi harategia, Itxaspe.

Hernani: Kiosko Plaza Berri, Ikertxo kongelatuak, Bigarren eskuko denda, Lekuona okindegia.

Alza: Bar 13, Bar Ezkurra, Fisioterapia Naiara, Candy pasteleria, Iratxe Carrillo podologa

Trintxerpe: Encurtidos El Sajar

Andoain: Consulta clínica dental Leizaran



KIROL ALBISTEAK

Asier Septien triatleta gaztea Espainiako txapeldunorde da

Asier Septien gaztea Espainiako txapeldun-orde geratu zen Lanzaroten, 20-24 urte bitarteko mailan. Emaiza ezin bikainagoa, triatloian hiru urte baizik ez daramatzen gaztearentzat. Buru gogortasunak eta diziplinak eraman dutela helmuga bigarren zapaltzera, aitortu du. Txirrindularitza praktikatu zuen gaztetan Javi Miguelen antzera, eta ikusia dago biezagarri pertsonal horiek dirrela kirol horrek bereziki erakusten dituen.

Zorionak, bigarren postu horrenatik!

Asier Septien: Eskerrik asko!

Ederki gozatuko zenuen proban...

A.S.: Etsizula pentsa. Tripetatik gaizki ibili nintzen hasieratik; ezin izan nuen behar bezala ez jan, ezta edan ere. Oso luzea egin zitzaidan proba guztia, eta ia arrastaka iritsi nintzen helmugara. Noski, askoz ere denbora hobeagoa egitea espero nuen, dena esatera.

Lasterketako bidean zehar, hotela gertu ikusten zen maiz, eta harako bidea hartu zuen baten baino gehiagok. Nik, behintzat, tentazio horri eutsi nion. Burugogorkeriak bultzatu zidan proba amaitzera.

Ez hori bakarrik, helmugara iritsi nintzenean, ez nekien bigarren postua eskuratu nuenik ere! Geroxeago eman zidaten berri pozgarria. Izan ere, Lanzaroten, distantzia berean, elitako eta gainerako mailatako parte hartzaile guztiak nahastu ibili ginen, eta beraz, proban zehar ezin izan ziren bereizi zein ziren zure mailakoak eta zein ez. Nire buruarekin kezkatu nintzen bakarrik, ez beste inorekin. Gauzak horrela, gozatu, benetan gozatu, lasterketaren ostean egin dut. Bukatu izanak eta bigarrena geratu izanak ematen didaten satisfakzioak eragin dit gozamenak.

Baina atzera begira jarrita: merezi izan al zizun baldintza horietan proban jarraitzea?

A.S.: Bai. Triatloilariak, oroko-



20-24 urtekoen mailan txapeldun-orde izan da Asier Septien.

rrean, sufritzen ikasita gaude eta diziplinatuak gara. Egun txarrak izan ditzakezu, baina hiru kirolak eginez gozatu egingo duzu gahenetan.

Nola egin zenien aurre hiru kirolei?

A.S.: Txirrindularitza gero gehienok bezala. Igerian txukun moldatzen saiatu nintzen, denbora gehiegirik galdu gabe; bizikleta gainean, neukan eta nekien guztia eman nuen; eta azkenik, korrika, geratzen zitzaizkidan indarrekin jardun nuen.

Nola antolatu ohi zara, hiru probetan entrenatzeko?

A.S.: Garrantzitsuena, eguna ondo antolatzen jakitea eta ho-

“Nire buruarekin kezkatu nintzen bakarrik, ez beste inorekin”

Asier Septien

rretarako aukera edukitzea da, eta noski, halako abenturan sartzeko gogoia eta motibazioa sentitzea. Sakrifikatua da kirol hau, gauza asko albo batera utzi behar izaten dituzu, baina merezi duelakoan nago.

Eta hemendik aurrera?

A.S.: Hurrengo egunetan, atsedena hartu! Azken asteetako entrenamenduek eta probak eragindako buruko nekea gainditu, eta hurrengo denboraldiari begira jarriko naiz laster.



Kerman haurarekin egin zituen probaren azken metroak.

Odriozola, Arregi anaiak eta Alberdi Superprestige proban



Ziklo-krosean eta mendi bizikletan onenen pare dabil-tza senior mailako Arregi anaiak eta Olatz Odriozola. Jokin Alberdi gaztea ere errepidean bezala lokatz artean bikain moldatzen da. Laurak asteburuan Belgikako Superprestige proban arituko dira. Zorte on!

Mendi Astea, azken txanpa

Euskalduna Mendigoizale elkartearen Mendi Astea 50. ediziora iritsi da. Aste hasieratik jarduera ugari burutu dira. Horra, asteari amaiera emateko iragarri dituztenak:

Azaroak 13, osteguna

20:00 2014an zehar egindako jarduerak.

Azaroak 14, ostirala

20:00 *Western Europe mountain route*: 4000 kilometro oinez, bizikletan eta patinetan.

Azaroak 16, igandea

Amezketan-Urreako haitzak-Azkarate-Betelu mendi ibilbidea. Ondoren, babarrun jatea.

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak

Askatuak 38-47 Ganbara Sen. Oiarso B 41-47 Ganbara Kad. Ganbara Inf. 34-37 Axular

Asteburuko partidak Andoainean

Ganbara Kad-Oiartzun Larunbata, 15. 12:15. Ganbara Sen.-Zats Larunbata, 15. 19:15.

Urnietako pilota albisteak



Iker Elgarresta-Aitor Aldunberri bikotea.

Urnietako 22-8 Oiarpe

Jon Alberdi-Imanol Odriozola. Kadeteak, 1. maila. Gipuzkoako finalaurrekora sailkatu dira.

Hondarribia 3-22 Urnietako

Elgarresta-Aldunberri. Kadeteak, 3. maila. Tanto bakar bategatik lehiatik kanpo geratu dira. Lastima, etxean 21-22 galdu zuten partida hura.

Euskalduna-Urnietako

8. jardunaldia:

Lengokoak 0-4 Euskalduna
Urnietako 1-1 Sanpedrotarra
Asteburuko partidak:
Euskalduna-Urnietako

Sailkapena:

1. Urnietako	20
2. Orioko	19
3. Baskonia	15
5. Euskalduna	15

Eskubaloia, senior maila

1. Maila. 5. jardunaldia:
Leizaran 22-27 Urnietako

Asteburuko partidak:
Urnietako-Usturibil
Donibane-Leizaran

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 13TIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **"Perdida".**
19:30, 22:00.
Azaroak 15, larunbata.
19:30.
Azaroak 16, igandea.
19:30, 22:00.
Azaroak 17, astelehena.
- **"Sugar Man".**
Azaroak 19, astzk. 19:30.
- **"Tortugas Ninja".**
Azaroak 15 eta 16. 17:00.

Urnietan, Sarobe

- **"Como entrenar a tu dragon 2".**
16:00, 18:30.
Azaroak 16, igandea.
- Datorren asteburuan:
"Rio 2".

Bazkariak

Andoain

- 1959an jaiotakoak.
14:00 Taldeko argazkia.
14:30 Bazkaria Txertotan.
Azaroak 15, larunbata.
- 1974an jaiotakoek deituta.
21:00 Afaria Oianumen.
Azaroak 22, larunbata.

Dantza

Urnietan

- Dantza afrikarrari buruzko ikastaro trinkoa, egun osoz.
Azaroak 15, larunbata.

Bilerak

Urnietan

- Udaleko Gizartekintza eta Berdintasun arloak bilera bat deitu du herriko elkar-teenekin. Xehetasun gehiago, 3. orrialdean.
18:00. Lekaio.
Azaroak 13, osteguna.

Andoain

- "Andoaingo Gudua 2015" antolaketa lanei ekiteko bilera. Partaideek izena ematen hasi behar dute.
18:00. Bastero.
Azaroak 17, astelehena

Gazteak

Andoain

- **Hilabete morea:**
Beldur Barik, bideoak
Azaroak 13, ostg. 18:00.
Autodefentsa ikastaroa
Azaroak 14, ost. 18:30.
- **Gazte Lokalaren urteurrena:**
Sari banaketa:
'Gomendatzen dizut...' lehiaketa.
Azaroak 14, ostirala.
Irteera:
Irrisarriland abentura par-kera.
Azaroak 15, larunbata.
Merienda:
Gazte Lokalean bertan.
Azaroak 16, igandea.
- **Gaztetxearen urteurrena:**
Azaroak 13, osteguna
21:30 Bertso afaria:
Xamoa, Mantxi eta Amaia Agirre.
Azaroak 14, ostirala
22:30 Kontzertua:
Estricalla, Hilkar.
Azaroak 15, larunbata
18:30 Dantza poteoa Kata-luniako eta Axeri dantzako kideekin.
22:30 Kontzertua:
Kauta, Herena.
- **"Gazteok hartu hitza!"**
Parte hartze prozesuaren azken bilera:
18:30. Bastero.
Azaroak 19, asteazkena.

Irteera

Andoain, Ludoteka

- **"Larunbatean euskaraz":** Irrisarriland gunera irteera.
Izen-ematea: 943 592 181.
Azaroak 22, larunbata.

Zikloa

Andoain

- "Genero ikuspegitik herri-herri hobetu beharreko puntuen mapa osatzen", Udalak antolatutako parte hartze egitasmo berria.
Informazio osagarria 7. orrialdean.
Azaroak 17-26.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- **"Potologuak":** Nagore Aranburu, Mikel Pagadi eta Egoitz Lasa.
21:30. Auditorioa.
Azaroak 14, ostirala.

Urnietan, Sarobe

- **Jubilatu taldeen lanak:**
17:30 Hondarribiko Kasino Zaharreko antzerki taldea: "Ellas son asi".
19:00 Denda Berriko taldea, "¿Crisis....What Crisis?".
Azaroak 13, osteguna.

Matrikula

Andoain

- 2015eko urtarrilean 0-1 eta 1-2 urteko haurrak Galardi matrikulatzeko epea laster zabalduko dute:
Azaroak 24-abenduak 5.
Izen-ematea: Bastero.
- Galardi Haur Eskola ezagutzeko ate irekiera ekitaldia:
16:30-18:30.
Azaroak 17, astelehena.

Tailerra

Urnietan, Sarobe

- Udak antzerki tailerra azaroaren 14tik aurrera.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- Ainhoa Akutain Ziarrusta artistaren lanak ikusgai.
Azaroaren 14tik aurrera.

Odol-emaileak

Urnietan

- Anbulatorio zaharrean.
18:30-20:30.
Azaroak 28, ostirala.

Musika

Andoain, Bastero

- Andoaingo Udak Musika Eskolako Banda zuzenean.
Azaroak 23, igandea. 12:00.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Uxue Ibañez Donosok 19 urte bete zituen azaroaren 10ean. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik. Ondondo pasa.

ANDOAIN

ZORIONAK



Azaroaren 18an **Eñaut San Sebastian Perezek** 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxu asko etxekoen partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



azaroaren 12an 7 urte bete zituen. Muxu potoloak. Danel, aitaxo eta amatxo.

ANDOAIN

ZORIONAK



15 urte bete ditu azaroaren 22an. Zorionak guapa!

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN

- diseinua@aiurri.com
- Aiurriko bulegoetan

"Andoaingo Gudua 2015" prestatzeko bilera Basteron



[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Antolatzaileentzat garrantzia handikoa da izena ematea astelehenean, hutsetik hasiko baitira batailoak eta taldeak antolatzen. Garrantzitsua da ere izena ematera joango direnak bere soineko

hainbat neurri jakinda joatea (buru bueltaren neurria, bular eta gerri bueltaren neurria eta oinetako zenbakia). Astelehenean izena ematen duten herritarrekin antolatuko dituzte batailoak eta herritar eta antzezle taldeak eta entseguak udaberriari hasiko dira.

Bien bitartean, jostunek bere lanari ekingo diote eta azpiegitura landuko da.

Informazio osagarria nahi duenak 656 782 521 telefono zenbakira dei egin dezake.

Bilera:

18:00. Bastero.
Azaroak 17, astelehena.

Organoak ehun urte San Martin elizan



Kontzertu berezia iragarri da San Martin parrokiari, azaroaren 15ean, larunbata-ekin. 8:30etatik aurrera San Martin eta Santa Zezilia meza izango da, eta ondoren organo kontzertua **Josean Pascual** eta **Ana Belen Garcia** organojoleen eskutik. **Josean Setien** txistularia eta **Alberto**

Agirre abesbatza izango dituzte laguntzaile. Honako programa interpretatuko dute: *Agur Jaunak*, *Maitasunezko hitzak*, *Pieza Sinfonica*, *Cantantibus Organis*, *Kontzertua Re-minorrean*, *Larramendi* eta *Santa Krutz martxa*.

San Martin elizako organoaren historian bere jotzaile izan direnak hartuko dira bereziki gogoan larunbatean: **Eulogio Saldias** (1877-1914), **Alberto Agirre** (1914-1973), **Jose Angel Agirre** (1973-2001) eta **Miguel Agirre** (2001-2012).